

{ asteari zeharka begira } **Pello Otxandiano**

Ostera berriro hastera

Urte politikoaren irekiera ofizialaren astea izan da hau, alderdi eta instituzio nagusien zeremonia-ekitaldi ohikoena. “Maravillas auzia” tarteko, dinamika politikoa tenperatura hartzen hasia zen pasa den astetik, ordea. Nafarroan harrabots handia sortu duen Maravillas gaztetxearen desalojoak zentraltasun mediatikoa irabazi duen arren, izan dira bestelako gertaera larri batzuk ere azken egunetan, kasu batzuetan behar beste denbora eta espazio hartu ez dutenak medioetan eta sare sozialetan: lan istripuak izan ditugu, 2018an 41 langile hil dira guztira Euskal Herrian; mugimendu feministaren loraldiak eraso matxistak geldiarazten ez dituela frogatu dute jaiek; migratzaileen etorrerak baliabide instituzionalak kolapsatu ditu; pentsionistek gelditzeko etorri direla eta zeresana ematen jarraituko dutela iragarri digute Bilboko Aste Nagusian.

Pasa den urte politikoa ez-ohikoa izan zen mobilizazio sozialari dagokionez eta, azken aste eta egun hauei zeharka begiratzuz, badirudi hasi berria den honek ere joera horri eutsiko diola. Seguruenez, beste gai batzuk ere egingo dute lekua agenda sozialean datozen hilabeteetan, hezkuntza sisteman gertatzen ari den klase/jatorri

segregazioak adibidez. Euskal gizartea borborka dago eta agenda politikoa markatzeko ahalmena duen mobilizazio gaitasuna erakusten ari da. Ikus bestela nola alboratu duen EAJk euskal oasiaren diskurtsoa.

Hauteskunde urtea da hau eta eragile politiko nagusiek ekin diote motorrak berotzeari. Azken egunetako batzuen eta besteen adierazpen eta jokamoldeei erreparatzuz, urte honen dinamika politikoaren bektore nagusiak zeintzuk izango diren igarri liteke: Urkulluk bere lehentasunak adierazi ditu. Begi bistakoa da EAEko estatus politikoarekin EH Bilduk eta EAJk erdietsi duten adostasunarekin gustura ez dagoela, eta akordioa transbertsalizatzeko nahiak konfrontazio demokratikoa ekiditeko asmoa erakusten duela, bagenekiena; ELA ere

entzun dugu akordio hau baloratzen. Zaila da Txiki Muñozek adierazi duena baloratzea, zer esan duen ere ez baitago batere garbi. Idatziz adieraziko dutela iragarri dute eta esperoan gelditzen gara. Momentuz dakiguna da estatus politiko berrirako oinarrietan gehiengo sindikal abertzalearen aldarrikapen historikoak jasota ere, ELAk akordioaren aurka egingo duela, eta, beraz, etsai bat gehiago batu zaiola akordioari Vocentoz, PPz eta PSEz gain.

Geroa Baik ere, “Maravillas auzian” hartutako erabakiekin eta egindako kudeaketa txapuzeroarekin, aldaketaren legealdi honen azken hilabeteak norabidetu ditu. Zaila zait ulertzen jokabide batzuen logika politikoa, baina, edozein kasutan, desalojoaren erabaki unilateralak aldaketaren eragile politikoaren arteko zubiak kaltetu ditu nabarmen, eta, beraz, aldaketa bera ahuldu du, balizko Geroa Bai-PSN gobernu baten hipotesia hauspotuz. Ho-

Urte politiko berrian, presoei dagokienez, ezin ezerean esperoan egon; hurbilketa, gradu progresio, kaleratze bakoitza borrokatu beharreko zerbait izango da

rrekin batera, gaztetxeak aldaketa kaltetzeko erabiltzen ari den sektore bat ere ikusi dugu. Hori ere badago, eta egoten jarraituko du datozen hilabeteetan, eta konplexurik gabe lehiatu behar da termino ideologikoetan.

Marlaskak agerraldia egin du Kongresuan. Presoei dagokienez fase berri batean gaudela berretsi genezake, baina urratsak nahi eta behar baino motelago etorriko direla ere bai. Urte politiko berri honetan lehen mailako garrantzia duen presoen auziak nondik nora jo dezakeen igartzen laguntzen digu honek: ezin ezerean esperoan egon; hurbilketa bakoitza, gradu progresio bakoitza, kaleratze bakoitza borrokatu beharreko zerbait izango da. Presoei dagokienez, gizarte-presioa eraginkortzeko urte politikoa, beraz. •

SORTUZ, BIZI ALA IRAUN?

Artista eta sortzaileen lan baldintzak duintasunera hurbiltzeko urratsak

📁 JENDARTEA / Ane Urkiri Ansola

Ezinegon, zulo sakona», dio Berri Txarrak taldearen abesti batek; “Biziraun” kantuak, hain zuzen. Eta horixe bera da musikariek, aktoreek, idazleek, dantzariak, sortzaileek oro har egiten dutena: biziraun, bizi ala iraun, non eta sortzaile askok aipatzen duten «prekariatatearen basamortuan».

Sortzaileen lan-prozesua egunka zenbatzen da askotan –aktoreen kasuan, adibidez–, edo sormenaren bitartez eraikitako edukiak izaten dituzte diru-iturri nagusi, beraz, salmenten edo merkatuaren menpe daude. «Artea ez da sektore bezala hartzen, bakarrik arte plastikoak edo ikus-entzunezkoen arloa hartzen dira kontuan», zehaztu du Fernando Saenz de Ugarte dantzariak.

Artisten jarduera «noiz-behinkakoa» izaten da, eta, hortaz, zaila dute langabezia jasotzeko haina lanegun batzea. 60 lanegunengatik, esaterako, behar baino gehiago ordaintzen diote aktore askok Gizarte Segurantzari, trukean lanegun gehiago pilatzeko (180 kasu), hala langabezia prestazioa jasotzea errazago izateko. «Gainkostu» hori enpresek ere beren gain hartzea da Euskal Aktoreen Batasunaren aldarrikapenetako bat, Eneko Olasagasti antolakuntza idazkariak aipatu legez.

Gotzon Barandiaran idazle eta musikariaren aburuz artistek, sortzaileek, gizarteari egiten dioten ekarpena kontuan hartzea ezinbestekoa da, «ekarpena ez baita soilik kulturala, ekonomikoa ere bada». 2014an Guk Gure Kulturaz plataformaren ekimenez eginiko bi bilera nagusietan sortzaile-

en lan baldintzak eta egoera definitzeko beharra azaldu eta ondorio batzuk atera zituzten euskal sortzaileek, jakinik artista euskaldunen mugak are handiagoak direla. Bada, Barandiaranen ustez, euskal artistek egindako aldarrikapenak abiapuntu hartuta egindako proposamena eraman zuen Ahora Podemoseko ordezkari Eduardo Maurak Madrileko Kongresuko Kultura

Idazleak, musikariak, aktoreak, dantzariak, sortzaileak hartzen dituen sektoreak oinarri batzuk finkatu dituela albiste da, Artisten Estatutuaren ebazpena onartu baitu Madrilgo Kongresuko Kultura Azpibatzordeak. Aho batez. Eta horixe da sortzaileek nabarmentzen dutena, oraindik ere Estatutua aplikatzeko urratsak emateke egon arren.

Azpibatzordera.

Fiskalitatearena da Artisten Estatutuaren barnean jasotako hiru bloke nagusienetako bat, zeinetan guztira 78 puntu batzen dituzten. Lan babesari eta Gizarte Segurantzari buruzkoa da bigarren blokea. Azkenik, erretiroa hartutakoan pentsio izateko eskubidea jasotzen da, sortzen jarraitzeko aukera aurreikusiz. «Hau da, behin erretiratu ostean antzezteko auke-

ra izatea, eta pentsiotik antzezpénogatik jaso duzun dirua kentzea, ez gehiago», nabarmendu du Euskal Aktoreen Batasuneko ordezkariak. Jabetza intelektualarengatik kobratzen jarraitzeko aukera ere aurreikusi da.

Erretiroa auzi zaila izaten da artisten kasuan eta hori nabarmendu nahi izan du Olasagastik. Aktoreen artean, esaterako, urteak bete ahala nabarmen jaisten dira lan aukerak, «eta kotizatzerakoan, horiexek dira lansari garrantzitsuenak». Emakumeetan, gainera, lan beharakada hori are handiagoa izaten da, eta, horregatik, lehenbailehen konpondu beharreko auzia dela uste du. «Ia ez dira 40 urtetik gorako emakumeentzako obrak egiten», adierazi du Olasagastik. Haurdunaldiaren auzia «kapitulu aparte bat» dela ere nabarmendu du: «Haurdun dauden aktoreek ez dute lanik, eta, lanik ez badaukazu, ez duzu bazarik ere. Haurdun egonda, lan aukerak are murriztagoak dira». Irteerarik gabeko zurrumbiloea izaten da haurdunaldia aktore askorentzat. Horiek horrela, aktoreen aldarrikapen nagusietako bi «urte txarrenak» kotizazioetatik aldentzea eta langabezia jasotzeko aukera «malgutzea» dira. Oraingoz, Artisten Estatutuan gomendio bezala jasota geratu dira, Gobernuaren onespeneraren zain.

ITUN BATEN FALTA

«Telebistak ez du dirurik ematen». Hain tinko esan du Olasagastik, ez duela harridurarako tarterik ere utzi. «Orain dela gutxi erreparasatu genituen zifren arabera, gure bazkide diren aktoreen %80 eta %90 artean langabezian daude», gaineratu du.

Gaur-gaurkoz, ez dago euska-

Arte Dramatiko eta Dantzako Goi Mailako eskola da Dantzerti, bakarra Euskal Herrian. Irudian, 2015eko kurtso hasierako ekitaldia. Monika DEL VALLE | FOKU





razko telesailik, “Goazen” salbu. Sasoi batean, euskal aktoreentzako –batez ere protagonistentzako– berme moduko bat ziren “Goenkale” bezalako telesailak, bertan hilabete edo gehiagoko kontratuak izaten baitzituzten, zinema edo antzerkiak ahalbidetzen ez duena.

Uneotan 425 aktore daude Euskal Aktoreen Batasunean izena emanda. Aktoreek lan auzietan duten ordezkari bakarra da gainera elkarteak, ez baitago aktorerik, adibidez, ELA edo LAB sindikatuak izena emanda. Euskal Aktoreen Batasunak egin izan ditu hitzarmen txikiak enpresa edo produktore zehatzekin, baina, sektoreko itun bat negoziatzeko orduan, «legez behartuta gaude beste bi sindikaturekin, gutxienez, elkartu eta mahainegoziatzaile bat osatzera, eta, oraingoan, ez dugu horretarako adostasunik lortu».

Artistek sindikatuak antolatzen duten zailtasuna Madrilen 2017ko udaberritik eztabaidatu den Estatutuan ere

jaso da: «Sindikatuaren legegria kontuan hartuta, zaila da oso ezinezkoa ez esatearren». Horregatik, prekarietatearekin bukatzeko, egungo legegria moldatzea eskatu dute Kongresuko Kultura Azpibatzordean. Euskal Aktoreen Batasunak ere parte hartu du bertan, Madrileko Aktoreen Sindikatuak eta Conartek bultzatu eta Ahora Podemosek Kongresura eramandako ekimenean. EAJren ordezkari gisa Joseba Agirretxea egon da Azpibatzordean, eta, Olasagastik adierazi duenez, une oro izan dute kontaktua. «Foru aldundiekin ere hitz egin dugu, fiskalitatearen afera hemen garatu baitezakegu: ogasunen konpetentzia gure gain daukagu», azaldu du.

SORKUNTZA PROZESUA

Sorkuntza prozesuan zehar diru-iturri bat izatea izango da, Artisten Estatutua lege bihurtuz gero, berrikuntzarik garrantzitsuenetarikoa –aurretiaz aipatu ditugunak ahortziz gabe–. Hori irizten dio Fernan-

Dantzaz konpainiak hamar dantzari kontratatzen ditu eta sei bekadun izaten ditu. Irudian, konpainiako kideak «Things I told nobody» entseatzeko, 2013. urtean. Andoni CANELLADA | FOKU

do Saenz de Ugarte dantzariak. «Artistok, dantzariok, egun bat lan egiteko, aurretik prozesu oso bat landu behar dugu eta prozesu hori guk geuk ordaintzen dugu, trukean ezer jaso gabe. Denbora horretan guztian ez gara Gizarte Segurantzaren alta emanda izaten, gure lanaren parte izan arren», adierazi du tinko Dantzaz elkartearen zuzendariak.

«Estatutuak nahi duena da entseatzeko gaudenean ere ordaintzea; sortzen ari garenean, ordaintzea». Horretarako, baina, beharrezkoa iruditzen zaio Saenz de Ugarteri sindikatu, patronal eta artistek bat egitea. «Nola ordaindu eta beste hainbat auzi ekonomiko definitu gabe daude oraingoan, beraz, edozein pausu aurrerapauso itzela izan daiteke. Baina, gaur-gaurkoz, dena oso nahasgarria da: ez dago finkatuta zein den sindikatu, patronalik badagoen edo ez dagoen, artiston egitekoak ere airean daude... Alde guztietan bat egin behar dugu», aldarrikatu

du Saenz de Ugarterek.

Eguno egoeraren adibide gisa Euskal Herrian Dantzaz konpainia jarri du Saenz de Ugarterek. Patronal itxura duen elkarte-enpresa bakarra da gurean gaur egun, «eta hori hamar dantzari eta sei bekadun ditugula kontratupean», dio irribarrez. Gehienez bi urtez luza ditzakete lan hitzarmenak, Dantzaz konpainiak abiapuntu izan nahi baitu. Baina, aldi berean, bi urte horiek segurtasun berme bat dira egungo egoeran, bi urte «luzeko» kontratua lortzea «kasik ezinezkoa baita beste inon».

Saenz de Ugarterek azaldu duenez, Dantzerti Euskadiko Arte Dramatikoa eta Dantza Goi Mailako Eskolak badauka gaur egun gradu bat, baina beste kontserbatorio askotako ikasketek ez dute balio «zure ibilbide artistikoa profesionaltasunerako bideratu nahi izanez gero». Dantzaz elkartearen zuzendariak haserre gaineratu duenez, «Lanbideak baditu ekimenak gazteen edo berriki titulatu direnen artean enplegua sustatzeko, baina hor guztiak ikusezinak gara. Orkestra batean musikari gisa aritzeko edota konpainia batean dantzari gisa aritzeko ez da berez titulurik behar, audizio bat pasatzearekin nahikoa duzu. Behin hori gaindituta, baina, Lanbidera laguntza bila joanez gero ere, alferrik da».

Aktoreen formakuntzarekin lotuta antzeko kezka dituen Eneko Olasagastik ere. Dantzerti da arte eszenikoen kasuan graduak titulua eskaintzen duen Euskadiko eskola bakarra, beste guztiek ez dute eta titulurik ematen. Horren aurrean, badu aldarrikapenik Euskal Aktoreen Batasunak. Lehenik eta behin, herrietan dauden musika eskolak «arte


eszenikoen ikastetxe» bihurtzea. «Behintzat aukera eman 1992ko dekretua moldatzeko. Gero, udal bakoitzak ikusiko du merezi dion edo ez, aurrekonturik baduen edo ez». Hori aktoreen ibilbide profesionalean ere lagungarri izango litza-tekeela uste du Olasagastik, 40 urtetik gorako aktoreei irtenbide profesional bat eskainiko liekeelako.

«Baina nola frogatu zure hezkuntza edo formakuntza?». Hau da, nola sortu curriculum osatu bat? Beste eskoletan jasotako edukiak kreditu moduan jasotzea exijitzen dute Euskal Aktoreen Batasunetik. «Dantzertiren sarean sartu nahi dugu. Beste eskolek ez dute titulu ofizialik ematen, baina eskaintzen dituzten edukiak aintzat hartzea eskatzen dugu, etorkizun batean kreditu gisa balio dezaten».

IDAZTEA EZ DA OFIZIO

«Basamortuan galduta gaude, prekarietateak gogor kolpatuta». Yolanda Arrieta idazlearen hitzak dira, idazlearen ofizioa –«hala deitu badaiteke»– laburbiltzerakoan. Apenas bizi den idazlerik idaztetik bakarrik. «Idaztea ez da ofizio, ez da inoiz izan eta ez da inoiz izango», dio irmo Oier San Martin, Euskal Idazleen Elkarte-ko kudeatzaileak. Elkarte-ko bazkideen erdia, gutxi gorabehera, irakasleak direla gaineratu du Garbiñe Ubeda bertako presidenteak.

Egun 380 bazkide inguruk osatzen dute Euskal Idazleen Elkartea eta horietatik gutxi, oso gutxi, bizi dira sorkuntza-tik. Horietariko bat da Yolanda Arrieta, idazle izaera beste arloetara eramaten jakin duena. Haur eta gazte literaturan espezializatuta, bere irakasle eskolako ikasketak baliatu ditu



Ezkerrean, Garbiñe Ubeda eta Oier San Martin, hurrenez hurren Euskal Idazleen Elkarte-ko lehendakaria eta kudeatzailea. Eskuinean, Eneko Olasagasti, Euskal Aktoreen Batasuneko antolakuntza idazkaria. Idoloia ZABALETA | FOKU

hitzaldi eta tailerrak ikastetxez ikastetxe eskaintzeko. Horiek ematen diote bermea bizirauteko. «Euskal Idazleen Elkartek baditu hitzarmen batzuk lotuta, eta horietatik idazleentzat lan batzuk irteten dira, gehienetan bazkideei bideratzen dizkiegunak», azaldu du Ubedak.

Normalean argitaratzearen ez dute ordainik eskuratzen idazleek, egile eskubideen aurrerapena egon daiteke, baina

Artisten Estatutuak 75 puntu ditu. Madrilgo Kongresuko Kultura Azpibatzordeak aho batez onartu du ebazpen proposamena eta orain Gobernu espainolaren oniritzia behar du

Sortzaileak.eus webgunean 2.450 euskal sortzailetik gora daude izen emanda uneotan, gehiago ere badiren arren. Sortzaileok eta egiten duten lana ikustaraztea dute helburu



hori ere denboraren poderioz desagertzen joan dela zehaztu du Yolanda Arrietak. Diru-iturri nagusia, beraz, salmentetatik eskuratzen dute, eta hor ere idazleak irabaziaren %10 soilik eskuratzen du.

Ogasunaren begietan, idazle baten lana idazten hasten denetik bukatzen denera luzatzen da, baina, errealtatean, idatzi artean diru-sarrerarik ez du idazleak. «Galde iezaiozu Saizarbitoriari. Liburu bat idazteko hamar urte pasa badi-tu, nola ordainduko du urte horiei guztiei dagokien kuota?», jarri du adibide Oier San Martinek. Horregatik, Artisten Estatutuarekin tratamendu fiskal berezia ezartzea espero du, fakturazioaren arabera ordaintzea ahalbidetuko duena.

Garbiñe Ubedaren esanetan, eta ondoren Yolanda Arrietak ere baieztatu bezala, gaur-gaurkoz Eusko Jaurlaritzaren

bekak dira idazleek profesio-naltasunaren bidean duten bultzada bakarra: «Hau da, idazten hasteko dirua jasotzea». Arrieta beka horri esker ari da bere hurrengo liburua idazten. Epe batean entregatu behar du, baina onuragarria delakoan dago: «Idazterakoan pizgarri bat da beka hori berme gisa edukitzea». Honela laburbildu du bere bizimodua Arrietak: «Autonomo bezala jardutea, izateko modu bat da. Airean zaude, baina, azkenean, ikasi egiten duzu sentsazio hori antsietate ez bilakatzen».

Sormena zaintzeko, literatura iraunkortzeko, beharrezko ikusten ditu bekak Arrietak, «baina urterokoak behar dute izan, sortzaile ezberdinentzat aukerak egon daitezen. Euskarak merkatu txikia du eta oinarriak finkatzea funtsezkoa da hau zaindu eta, batez ere, pizteko».

*Begiratzeko modua aldatzeak
aldatu dezake mundua*






Amaia
BALLESTEROS

iRRITZIA:

LUR AZPIKO ABENTURAK



Manteroak

Koldo Sagasti

Hamabi urte dira Ibrahim Euskal Herrira iritsi zela. Beste 126 pertsonarekin batera txalupa batean ontziratu zen Senegaletik Kanarietara, zazpi eguneko bidaia arriskutsuan. Gasteizera heldu eta ordu gutxira, herrikide baten laguntzaz, kaleko salmentan hasi zen. Harexek utzi zion lehenengo salgaiak erosteko dirua. Ez zen, inondik inora, familiako lantegia atzean utzitakoan gogoan zuen ogibidea, baina beste zeregin hoberik lortu artean abiapuntua izan zitekeen. «Ni langilea naiz, ez naiz hona etorri eskean ibiltze-

ko», errepikatzen zuen harro. Diskoak saltzen hasi zen. Bazekien jarduera ilegala zela; baina horrek, akaso, ahalbidetuko zion bestelako produktuetara pasatzea. Halaxe izan zen. Gero ikasi egin zuen eta musu truk praktikak egin zituen lantoki berean kontratatu zuten. Uda honetan, hedabide ofizialeetan, salmenta ibiltarian aritzen direnen aurkako kanpaina sutsua burutu dute. Jomugan jarri dituzte. Euren jarduera ilegala dela leporatzen diete, baina ez da Wallapopen bidez edozein produktu saltzen duenarena baino ilegalagoa.

Bertako merkataritza txikia kaltetzea egozten diete; baina ez dute Inditex, Amazon, Primark edota El Corte Inglesek baino gehiago kaltetzen, ezta herrikerri eman ere. Salerosketa ez-arautu horretan aritzen direnek eskura duten modu bakarrean aurrera atera baino ez dute egiten. Ez ziren ontziratu hil ala biziko bidaia batean kalez kale galtzerdiak saltzen ibiltzeko. Baina bestelako helburu hobeak lortu bitartean, kale salmenta denik eta abiapunturik duintena izan daiteke, Ibrahim bezala, eskean ibiltzeko etorri ez denarentzat. •

Agurra

Mirari Martiarena
Iraola

Imanol Agirretxek agur esan dio bere futbol ibilbideari. Penaz hartu dut albistea, badakidalako agur esateko erabakiaren atzean sentimendu zurrumbiloa izaten dela. Baina badakit, era berean, norbere buruarekin zintzo izateko eta aurrera egiteko onena dela. Behin erabakia hartuta, noiz eta nola esan ere ez da erraza izaten. Kontraesana baitirudi irailean, kurtso hasieran, zerbaiti agur esatea. Irailaren 1eko GAUR8ko alean argitaratuko da oraingoz nire azken zutabea. Hauxe da, beraz, despedida. Benetan

eskerturik nago emandako eta izandako aukeragatik. Ezetz esaten ez nekielako hasi nintzen bertan idazten eta ez pentsa 2015etik hona arlo horretan gauzak askorik aldatu direnik. Baina agur esateko beharra sentitu dut. 42 hilabetez nahi nuena kontatzeko aukera izan dut orrialde honetan. Batzuetan azaletik, bestetan barrutik eta zenbaitetan erraietatik. Ordenagailu aurrean malkotan idatzi izan ditut nire bizipenak, gehiegi biluzi izanaren sentsazioarekin. Ez dizuet gezurrik esango: ez naiz idatzitako zutabe guztiekin

gustura geratu, baina beti ezin da bete-betean asmatu. Eskerrik asko irakurle, hilean behin nire hitzak irakurtzeko tartea hartu duzulako. Bereziki zuri Igor, fin-fin irakurri dituzulako guztiak; nire hileroko bisita egiteko modua izan da. Horrek ez du esan nahi hemendik aurrera nire berri izango ez duzunik. Eta nola ez, idazten hasi nintzenean gaizki egongo zen beldurrez zutabea aurrez jasotzen zuten lagunei. Hauxe da agurra, beraz, edo gero artea, batek daki! Zoriontsu segi! •